

**EUSKARAREN
CORPUS
PLANGINTZA**

AURKIBIDEA

Euskara hizkuntza

1. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-planifikazioa

2. Euskarari buruzko zenbait datu garrantzitsu

3. Euskararen lege-estatusa

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

- 3.1.1. Administrazioa
- 3.1.2. Hezkuntza
- 3.1.3. Hedabideak
- 3.1.4. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

3.2. Nafarroako Foru Erkidegoa

3.3. Ipar Euskal Herria

Euskararen corpusa

1. Euskara

- 1.1. Jatorria eta ahaidekoak
- 1.2. Ezaugarri gramatikalak
- 1.3. Euskalkiak
- 1.4. Euskara Batua: historia laburra

2. Corpus-plangintza

2.1. Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona

- 2.1.1. Euskal Gramatika
- 2.1.2. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)
- 2.1.3. XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa
- 2.1.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)

2.2. Hizkuntzaren estandarizazioa

- 2.2.1. Bereziki hizkuntza idatzirako finkatu beharrekoa: ortografia
- 2.2.2. Bereziki ahozko hizkuntzarako finkatu beharrekoak: ahoskera, azentua
- 2.2.3. Hizkuntza idatzirako zein ahozkorako finkatu beharrekoak: gramatika, hiztegia, toponomastika, hizkuntzaren erregistro desberdinak

2.3. Hizkuntzaren modernizazioa

2.3.1. Terminologia

2.3.2 Terminologia-lana egiten duten erakundeak

2.3.3. Hiztegi orokor modernoak eta erreferentziazko lanak

Hizkuntzen teknologiak

Euskararen garapena informazio eta komunikazioaren teknologia berrien arloan

Ondorioak

Bibliografia

Euskara

1. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza

Asko izan dira azken urteotan bi termino hauen inguruan soziolinguistikak eman dituen definizioak eta horien artean ezarri dituen erlazio-motak. Labur-labur honela definituko genituzke:

Hizkuntza-politika: gobernu batek hizkuntza-egoera jakin baten aurrean esku-hartzea erabakitzen du, eta dauden edo sortzen diren arazoei irtenbidea emateko hizkuntza-plangintza bat ezartzen du; beraz, hizkuntza-plangintza da hizkuntza-politikaren aplikazioa¹.”

Hizkuntza-plangintza: termino hau Einar Haugen egileak erabili zuen lehen aldiz 1966. urtean, hizkuntzaren formari eta funtzioari buruzko gaiak hartzen zituen proposamena egin zuenean. Ondoren, Heinz Klosek (1969) beste eredu bat proposatu zuen, *corpus-plangintza* eta *estatus-plangintza* bereiztuz. Einar Haugenek 2. eredu bat proposatu zuen 1983. urtean, berak lehen ereduari egindako aldaketak jasoz eta Klossen tipologia erabiliz:

1. Hizkuntzaren **corpus-plangintza**. Hizkuntza beraren barneko alderdia. Hizkuntza-aldaeren artean, eredu bat aukeratzen da, horren gainean hizkuntza estandarra eraikitzeko. Horren barruan bereiztu ohi dira:

- a. Estandarizazioa: ortografia, fonetika, fonologia, gramatika eta lexikoaren mailan.
- b. Modernizazioa: teknolektoetan edo terminologia berezietan.

2. Hizkuntzaren **estatus-plangintza**. Hizkuntzaren estatus juridikoaren garapena. Plangintza horren barruan, gobernu batek hizkuntza-egoera jakin batean esku-hartzea erabakitzen du hizkuntza hori gizartearen esparru guztietan erabilia izan dadin, eta horretarako behar den lege-markoa ezartzen du.

¹ Araceli Díaz de Lezana: "Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak". Administrazioko hizkera eta terminologia Jardunaldiak. HAEE-IVAP, 1989

	FORM <i>(policy planning)</i>	FUNCTION <i>(language cultivation)</i>
	FORMA <i>(hizkuntza-politika)</i>	FUNTZIOA <i>("hizkuntzaren kultura")</i>
<i>Society</i> <i>(status planning)</i> <i>Gizartea</i> <i>(estatus-plangintza)</i>	<i>1. Selection</i> <i>(decision procedures)</i> <i>a) identification of problem</i> <i>b) allocation of norms</i> 1. Araua aukeratzea (erabakitze-prozesuak) a) identifikazioa b) zeri eragiten dion	<i>3. Implementation (educational spread)</i> <i>a) correction procedures</i> <i>b) evaluation</i> 3. Ezarpena (heziketa-prozesua) a) neurri zuzentzaileak b) ebaluazioa
<i>Language</i> <i>(corpus planning)</i> <i>Hizkuntza</i> <i>(corpus-plangintza)</i>	<i>2. Codification (standardization procedures)</i> <i>a) graphization</i> <i>b) grammatication</i> <i>c) lexication</i> 2. Arauaren kodifikazioa (estandarizazioa) a) ortografia b) sintaxia c) lexikoa	<i>4. Elaboration (functional development)</i> <i>a) terminological modernization</i> <i>b) stylistic development</i> 4. Funtzio-garapena a) terminologiaren modernizazioa b) hizkuntzaren estilo-funtzioaren garapena

Iturria: Einar Haugen; *The Implementation of Corpus Planning*, 1983

2. Euskarari buruzko zenbait datu garrantzitsu

Kokapen geografikoa

Euskara Euskal Herriko hizkuntza da, eta Espainiako eta Frantziako estatuen arteko lurraldean hitz egiten da. Hego Euskal Herrian Euskal Autonomia Erkidegoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Nafarroako Foru Erkidegoa daude, eta Ipar Euskal Herrian Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Lurralde honek 20.864 km eta 3.000.000 biztanle inguru ditu.



Banaketa administratiboa

Euskal Herria bi estatutan eta hiru administraziotan banatuta dago. Ipar Euskal Herriko Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak, Biarnorekin batera, Pirinio Atlantikoetako Departamendua osatzen dute, Akitaniako eskualdean. Ipar Euskal Herriko lurraldeek ez dute inolako autonomia politiko edo administratiborik departamenduaren barnean. Hego Euskal Herria bi autonomia-erkidegotan banatuta dago: Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa.


Egoera soziolinguistikoa

Jakina denez, ikerketa soziolinguistikoak eta zentsuko datuak oinarritzko tresnak dira hizkuntza gutxituak biziberritzeko antolatzen diren hizkuntza-politiken eraginkortasuna neurtzeko, hizkuntzaren egoera zehatza antzemateko eta aurrera begira garatu beharreko hizkuntza-politiken nondik norakoa finkatzeko.


Euskal Herrian hiru inkesta soziolinguistiko egin dira: lehen 1991n egin zen; bigarrena, bost urte beranduago, eta 2001ean, hirugarrena. Inkestetan honako gai hauek aztertu dira:

- Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
- Euskararen erabilera etxean, familiarik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan.
- Euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleen interesa eta jarrera.
- Familia bidezko transmisioa eta euskaldun berrien analisia eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.

Ondoren datozen datuek -2001eko inkestakoek- erakusten digutenez, euskararen balioa eta indarra ez da berdina lurralde guztietan. Izan ere, euskara nabarmen doa goraka Euskal Autonomia Erkidegoan, behera Ipar Euskal Herrian, eta ez gora ez behera Nafarroako Foru Komunitatean. Horrek lotura zuzena du, jakina, euskara biziberritzeko azken urteotan abian jarri diren hizkuntza-politikekin.



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

Hizkuntza-Gaitasuna Lurraldeka

	EUSKAL HERRIA		E A E		NAFARROA		IPARRALDEA	
	Kop. milakotan	%	Kop. milakotan	%	Kop. milakotan	%	Kop. milakotan	%
Guztira	2.497	100	1.807	100	469	100	222	100
Elebidunak	634	25,4	531	29,4	48	10,3	55	24,7
<i>Euskal elebidunak</i>	178	7,1	150	8,3	16	3,5	12	5,3
<i>Elebidun orekatuak</i>	177	7,1	142	7,9	14	3,1	20	9,2
<i>Erdal elebidunak</i>	279	11,2	239	13,2	18	3,7	22	10,1
Elebidun hartzaileak	263	10,6	206	11,4	31	6,6	26	11,9
Erdaldun elebakarrak	1.600	64,1	1.070	59,2	389	83,1	141	63,4

Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

Hizkuntza-gaitasuna

Elebidunak gutxiengoa dira lurralde guztietan, baina aldeak daude: Euskal Herrian laurdena dira (%25,4), hau da, 634.000 lagun; EAEko elebidunen proportzioa Euskal Herri osokoa baino zertxobait handiagoa da (%29,4); txikixeagoa, Iparraldean (%24,7), eta hamarretik bat baino ez Nafarroan (%10,3). Bilakaerari dagokionez, berriz, goiko joerak berretsi ohi dira hiru lurraldeetan; ia 9 puntu gutxiago Iparraldean (1991n %33,1); eta apenas puntu bat gehiago Nafarroan (1991n, %9,5). Euskal Herrian, batez bestean, garai hartan baino 3 puntu gehiago (1991n %22,3), EAEko igoerari esker.

Euskararen transmisioa

Euskaraz dakitenak lehen hizkuntza euskara izan dutenak baino gehiago dira Iparraldean ez beste toki guztietan. Lehen hizkuntza euskara bakarrik izan dutenak %17,3 dira Euskal Herrian; %18,8 EAEn, %25 Iparraldean, eta %7,7 Nafarroan. Lehen hizkuntza moduan, euskara eta erdara (gaztelania edo frantsesa), biak batera, izan dituztenak, berriz, %5,1 dira EAEn, %4,2 Iparraldean, eta %6,1 Nafarroan.

Emaitzak 1991koen oso antzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, eta Iparraldean, berriz, orduan baino askoz okerragoak. Zehazki, azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan egin da aurrera familia bidezko transmisioan, nahiz eta oraindik goizegi den biztanleria osoan hori antzemateko.

Euskararen erabilera

Erabilerak zertxobait gora egin du, 1991tik 2001era bitartean. Euskal Herri osoan, euskaraz erdaraz bezainbat edo gehiago hitz egiten dutenak %13,9tik %14,9ra pasatu dira EAEn %15,7tik %18,7ra igo direlako. Nafarroan aldaketarik apenas gertatu den bitartean (%6,1, egun eta 1991n), Iparraldean sekulako galera gertatu da (%15,4tik %10,2ra). EAEko igoera berrogeita hamar urte baino gutxiago dituztenen artean gertatu da, batik bat. Euskararen erabilerak gora egin izana zor zaio ohiko euskaldunek erakutsitako leialtasunari eta, nagusiki, euskaldun berriak ugaritu izanari.

Euskararen erabileraren gorakada Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietan gertatu da; gune soziolinguistikorik erdaldunenak dira, nolahi ere, dinamiko eta aldakorrenak. Erabilera-esparruei dagokienez, berriz, azken hamar urteotan, erabilera publikoak gizarte-erabilerak edota etxeko erabilerak baino gehiago egin du gora.

Jarrera

Biztanle gehienak euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzearen alde ageri dira Euskal Herrian. Izan ere, aldeko jarrera dutenak (%45,4) aurkako jarrera dutenak (%20,1) baino bi aldiz gehiago dira. Alabaina, lurraldez lurraldeko egoerak oso desberdinak dira: aldekoak erdia baino zertxobait gehiago dira EAEn (%50,2); ez alde, ez aurka daudenak parean dira Iparraldean (%41,7 eta %41,9); baina alde daudenak aurka direnak baino dezente gutxiago dira, Nafarroan (%28,5 eta %34,5). Hala eta guztiz ere, Nafarroan alde direnak, gaur, 1991n baino askoz gehiago dira, garai hartan, %23,3 baino ez baitziren.

3. Euskararen lege-estatusa

Sarreran hizkuntza-plangintzaz jardun garenean, argi utzi dugu termino horren barruan bi alderdi daudela, hau da, *corpus-plangintza* eta *estatus-plangintza*. Kontuan izanik hizkuntzaren biziraupena eta garapena elkarri lotuta daudela eta biak ezinbestekoak direla, hizkuntza-politika, eta, ondorioz, hizkuntza-plangintza abian duten gobernuek neurriak hartzen dituzte hizkuntzaren bi arlo horien normalizazioa bideratzeko.

Hortaz, estatusak corpusean duen eragina ukalezina da, horrek ahalbidetzen baitu hizkuntza giza jarduera desberdinetan erabiltzea eta, aldi berean, garatzea. Izan ere, zenbat eta gehiago erabili hizkuntza, gero eta behar gehiago sortzen da. Hizkuntza gauza bizia izanik, etengabe aldatzen ari da, baina prozesu hori modu kontrolatuan gertatu behar da; hizkuntzaren estatus juridikoa da, hain zuzen, prozesu hori zuzentzeko tresna.

Euskal Autonomia Erkidegoan **estatus-plangintzaz** hitz egiterakoan, abiapuntua, ezinbestean, Espainiako Konstituzioan (1978) eta EAEko Autonomia Estatutuan (1979) jarri behar dugu.

Espainiako Konstituzioko 3. artikularen 2. ataletik abiatuta Espainiar Estatuko koofizialtasun-sistema eratzen da. Artikulu horrek zera dio:

"...las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos"

Konstituzio Espainiarrak beste hizkuntza ofizialak zeintzuk diren zehazten ez duenez, autonomia-estatutuek betetzen dute hutsune hori. Horrela, Euskadiko Autonomia Estatutuak, Espainiar Konstituzioak eskainitako aukera baliatuz, euskara hizkuntza ofizial izendatu zuen 1979an, eta, ondorioz, herritar guztiei euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu zitzaien:

6. artikulua

1. *"Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea".*

1. *"Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte"*

3. *"Hizkuntza dela eta ez da inor gutxietsiko".*

Euskararen estatus juridikoari dagokionez, asko izan dira, 1979tik hona, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen gaitasuna, erabilera eta estatusa berreskuratzeko eratutako organismoak eta egindako arauak. Ipar Euskal Herrian, aitzitik, euskararen aldeko neurrietako bakan batzuek bakarrik ikusi dute argia. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan jarriko dugu arreta eta, bukatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Iparraldeko egoerak aipatuko ditugu.

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurri garrantzizkoenetako bat **Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea** izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babesa eskainiz. Horren ondorioz, hizkuntzaren normalkuntzak aurrerapauso handiak eman ditu, batez ere, administrazioan, hezkuntzan eta hedabideetan. Gaur egun, beste eremu askotara ere zabaltzen ari da euskararen normalkuntza, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari* esker.

3.1.1. Administrazioa

Hona 1979az geroztik Administrazioaren barruan eratu diren erakundeak:

- Euskararen Aholku Batzordea (1982)
- Euskal Irrati Telebista (EITB, 1982)
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE, 1983)
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP, 1983)
- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983); 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bilakatu zen.

Emandako arauak:

- *Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea*. Lege horrek hautaketa-prozesuetan eta lanpostu-deialdietan euskara meritu gisa nola baloratu zehaztu zuen. Lanpostu jakin baterako euskara ezinbesteko baldintzat jotzeko administrazio publikoek errespetatu behar dituzten baldintza eta mekanismoak ere zehaztu zituen.

- *Urriaren 17ko 224/1989 Dekretua*. Dekretu horrek benetako administrazio elebiduna lortzeko oinarriak finkatu eta euskararen normalkuntzarako lehenengo plangintza definitu zuen. Bost urteko plangintza horretan, *hizkuntza-eskakizunen* kontzeptua zehaztu zen, hau da, lanpostu baten zereginak eta eginbeharrak euskaraz bete ahal izateko izan beharreko hizkuntza-gaitasuna.

- *1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua*, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

- *Urtarrilaren 14ko 2/2003 Ebazpena*, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena. Ebazpen horrek agintzen du Jaurlaritzaren Kontseiluko Erabakia, EAEko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1998-2002 aldirako Planaren ezarpen-aldia luzatzen duena, argitara dadila.

3.1.2. Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzak 1983an Elebitasunaren Dekretua (138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa) aldarrikatu zuen. Horren bitartez arautzen dira gaur egun indarrean dauden hiru hezkuntza-ereduak: A (ikasgai guztiak, gaztelaniaz, eta, euskara, ikasgaia), B (eredu elebiduna) eta D (ikasgai guztiak, euskaraz, eta, gaztelania, ikasgaia).

Bestalde, hasieran, irakasleen hizkuntza-gaitasuna hezkuntza elebidun bihurtzeko zeuden arazoetako bat izan bazen ere, gaur egun, aldiz, egoera asko aldatu da, bereziki, hezkuntza-sisteman irakasle euskaldun asko sartu delako, eta, aldi berean, aktiboan zeuden

irakasleek hizkuntza-gaitasuna lortu dutelako. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, IRALE programaren bidez, sare pribatuan edo publikoan aktiboan dauden irakasleei euskara-ikastaroak eskaintzen dizkie.

EAEko Unibertsitatez Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, berriz, zehaztu egiten du irakaskuntzako lanpostu-zerrendetan adieraziko dela lanpostu bakoitzak daukan hizkuntza-eskakizuna eta, beharrezko izanez gero, derrigortasun-data. Lege horretan ezarritakoari jarraipena emanez, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan ezarri ziren hizkuntza-eskakizunak eta irakaskuntzako lanpostuetarako derrigortasun-datak zehazteko irizpideak, eta hizkuntza-eskakizun biko sistema bat: 1. hizkuntza-eskakizuna, euskarazko klaseak edo klaseak euskaraz ematen ez dituzten irakasleek bete ditzaketan lanpostuetarako, eta 2. hizkuntza-eskakizuna, eskolak euskaraz ematen dituztenentzat.

Azkenik, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, beste hainbat helbururen artean hau ezartzen du bere 6.1. e) artikuluan: "jakintza arlo guztietan euskara sartuz joatea, euskararen erabileraren normalizazioari laguntzeko".

3.1.3. Hedabideak

Irratia, telebista eta prentsa idatzia.

- *Irratia*: EAEko irrati publikoan 24 orduz euskaraz emititzen duten bi irrati daude: *Euskadi Irratia*, programazio konbentzionala daukan emisorea, eta *Euskadi Gaztea*, irrati-formula. Horrez gain, badaude beste irrati batzuk ere, lokalagoak eta eskualdekoagoak: batzuek euskaraz baino ez dute emititzen, *Arrate Irratia* eta *Bizkaia Irratia*, kasurako; beste batzuek programazio elebiduna dute, *Donostiako Herri Irratia* esaterako.

- *Telebista*: 1982ko Oinarrizko Legeak hedabideen programazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen zien herritarrei. Horren harian, maiatzaren 20ko 5/1982 Legea aipatu behar da, lege horren bidez sortu baitzen Euskal Irrati-Telebista (EITB). EITBk bi kate ditu eta horietako batek, ETB1ek, euskaraz emititzen du. Bestalde, badaude euskaraz emititzen duten beste telebista lokal batzuk.

- *Prentsa idatzia*: egunkarien kasuan, euskaldunok euskarazko egunkari bat daukagu: *Berría* (2002an sortua). Egunkari horrek aurrekari izan zuen *Euskaldunon Egunkaria*, 1990. urtean sortu eta, 12 urtez kaleratu ondoren, itxiarazia. Aldizkariei dagokienez, asko dira euskaraz argitaratzen direnak, oso gai ezberdinekin, eta, batzuk oso espezializatuak. Oro har, pribatuak izaten dira, baina herri-aginteen diru-laguntzak jasotzen dituzte.

3.1.4. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN, 1999)

Plana Euskararen Aholku Batzordeak egin zuen. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartu zuen 1998ko uztailaren 28an, eta Eusko Legebiltzarrak sendetsi, 1999ko abenduaren 10ean.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna. Plan irekia da, etengabe egokitzeko sortua.

Planaren lehenengo zatian jadanik eginda zegoen lana balioztatu egin da, hasitako jardueretan indar-guneak eta ahuleziak zein diren atzemateko helburuz. Bigarrenean, lehenengo zatian hizkuntzaren erabilera balioztatzeko erabili diren arlo berberei jarraiki

analisia xehatuz, datorren hamar urtean egin beharreko jardueretako proposamen zehatzak egin dira.

Plan honek oinarrizko erreferentzia eta tresna izan nahi du, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitzeke, foru-aldundiek eta udalek bideratu ohi duten euskararen aldeko sustapen-politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko.

Planak datozen hamar urteetarako erronka nagusiak hiru mailatan bereizita ematen ditu, hala nola, helburu nagusia, helburu estrategikoak, helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak.

Helburu nagusia

EBPNren helburu nagusia euskararen aldeko urratsak areagotzea da, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko Euskal Herrian, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakiz eta bultzatuz, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa.

Helburu estrategikoak

Hiru helburu estrategiko hartzen ditu bere baitan:

- Lehenengoa, euskara, belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaraztea, familia, eskola eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez.

- Bigarrena, produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko beharra, gizarte-erabilera ahalbideratze aldera. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena da belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitea. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman behar da, beste erabilera-eremuetara zabaldu arte, esaterako administrazioa, gune euskaldunenetara, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara, lan-arlora, aisialdira, kirolera eta erlijiora.

- Hirugarrena, hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatu egin behar dela, kultura-ekoizpenaren bidez, komunikabideen bidez (prentsa idatzia, irratia, telebista, argitalpenak, publizitatea) eta euskararen corpusaren plangintzaren bidez.

Helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak

Euskara biziberritzeko eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren irizpideen arabera, proposamen-aukeraketa egin da. Ondoren, aukeratutako proposamenen artean, lehentasunak finkatu dira.

Hizkuntza-corpusaren plangintzari dagokionez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak honako hau agintzen du VI.3.3.a. puntuan (hizkuntzaren corpusa eta euskararen kalitatea):

- Irakasleak etengabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz.

- Etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturaltasuna lortzeko.

- *Hiztegi Batua* amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako.
- Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu, eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.
- Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetarietarako.
- Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.
- Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.

3.2. Nafarroako Foru Erkidegoa

Foru Eraentza Legea 1982an sartu zen indarrean eta Nafarroako eremu euskaldunetan ofizial egin zuen euskara. *Euskararen Legea* onartu ondoren (1986) Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Saila eratu zuen 1988an, 1991n Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bilakatu zena. Gobernuak neurriak hartu zituen eremu euskaldunetarako, irakaskuntza-sisteman euskararen irakaskuntza bideratzeko eta herri-zerbitzuetan, kultura-jardueretan eta hedabideetan euskara erabili ahal izateko esparru instituzionalak ezartzeko.

Hala ere, 2001eko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak atzerapauso izugarria eman zuen *abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena* onartzean, eta, bide horretatik jarraituz, 2003. urtean, *29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena* onartu zuenean, lehendik hartutako neurriak murriztu zirelako, euskararen kalterako.

3.3. Ipar Euskal Herria

Frantziar, berriz, euskara, bretoa eta okzitania bezalako eskualde-hizkuntzen inguruan, Frantziako Iraultzaz geroztik batez ere, ez da hizkuntza gutxituen aldeko politikarik egin. Eskualde-hizkuntzak gutxietsi egin izan dira eta hezkuntza-sistematik, herri-administrazioaren maila guztietatik eta hedabideetatik kanpo utzi.

Hala ere, 1951n *"Deixonne Legea"* zela medio, eskualde-hizkuntzen irakaskuntza baimendu zen, baldin eta ikasleek Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak araututako eskola-programa frantsesa betetzen bazuten aldi berean. Dena den, hori aukerakoa zenez, ez zen diru-baliabiderik jarri, frantseseko derrigorrezko programaz gain, euskarazko irakaskuntza ematen zuten Estatuko ikastetxeentzat. Beraz, gurasoek jartzen zuten horretarako behar zen diru guztia: eraikinen kostua eta mantentzea, irakasleen soldadak eta eskola-garraioa. Baina 1994an, frantsesetik eta euskaraz irakasteko gaitasun-agiria zuten Hezkuntza Nazionaleko irakasleen soldadak ordaintzea erabaki zuen Gobernu Zentralak. Horretaz aparte, 1990ean eratutako Euskal Kultur Erakundeari urtero ematen zaion diru-kopurua kenduta, Frantziako Gobernuak ez du bestelako neurririk hartu euskara bezalako eskualde-hizkuntzak onestearen alde.

Bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian finkatutako lan-lerroak kontuan, euskara eta hizkuntza-politika gaietarako lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten 2003ko irailaren 3an, Eusko Jaurlaritzak eta Obragintza Publikoko erakundean partaide diren Akitaniako Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Ipar Euskal Herriko Hautetsien

Kontseiluak eta Euskal Kulturaren aldeko Herrien Elkargoak, ondoko arloetan elkarlanean jarduteko:

- Euskararen ondorengoetaratzea eta hiztunak sortzea
- Euskararen erabilera sustatzea
- Euskararen elikadura sendotzea

Sinatzaileen borondatea ere bada Ipar Euskal Herriko Hizkuntza Kontseilua sustatzea eta Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen arteko elkarlana bideratzea, baita euskararen bilakaera soziolinguistikoa hobeto ezagutzen joateko ikerketa-lerroak sustatzea eta bideratzea.

Euskararen corpora

1. Euskara

1.1. Jatorria eta ahaidekoak

Hemeretzigarren mendean hizkuntzak konparatzen eta sailkapen zientifikoak egiten hasi eta zenbait hizkuntzaren jatorriak argitzen hasi zirenetik, euskararen isolamendua areagotu egin da. Entziklopedia modernoetan agertzen diren hizkuntza-sailkapenetan, adibidez, euskarak leku berezia izan ohi du, ez baitu genealogiarik, ezta ahaidetasun ezagunik ere.

Euskararen jatorri bera duen hizkuntzaren bat aurkitzeko hamaika konparaketa egin dira. Horietako bi izan dira nabarmenenak. Lehenak euskara eta iberorazaren arteko ahaidetasuna gogorarazten du eta azken urte hauetan asko kritikatu da. Ildo berekoa da euskara eta Afrika iparraldeko hizkuntzak lotu nahi dituen teoria. Bigarren teoriak, bestalde, Kaukasoko hizkuntzekin erlazionatzen du. Teoria honek aldeko ikertzaile asko izan zituen arren, lan-metodologia eta ondorioen balioa zalantzan dago. Beraz, oro har, euskararen jatorri genetikoak oraindik ezezagunak dira.

1.2. Ezaugarri gramatikalak

Euskararen deskribapen xume bat egingo dugu fonologiaren, morfosintaxiaren eta lexikologiaren ikuspegitik.

Fonologia

- Euskara, gaztelania eta frantsesaren arteko azterketa konparatiboa eginez gero, soinu gehienak berdinak edo antzekoak direla ikus daiteke. Badira, hala ere, hainbat desberdintasun:

- Txistukariei dagokienez, gaztelaniak frikari bakarra dauka (apiko-albeolarra) frantsesak, bi (bizkar-albeolarra eta sabaiaurrekoa) eta euskarak, hiru (apiko-albeolarra, bizkar-albeolarra eta sabaiaurrekoa). Horiei dagozkien afrikatuak ere baditu.

- *m, p, d, g, x, h* eta *j* ez dira inoiz hitz amaieran agertzen, ezta *r* hitz hasieran ere, mailegu berrietan izan ezik.

- Bokalei dagokienetan, berriz, euskarak eta gaztelaniak bosna fonema bereizten dituzte (Zuberoako euskalkian seigarren bokal bat ere bereizten da, gaskoiaren eraginez ziurrenik); frantsesak, berriz, dozenatik gora bereizten ditu.

Morfosintaxia

Euskarak bi ezaugarri berezi ditu: hizkuntza eranskaria da eta kasu ergatiboa du deklinabidean. Deklinabide-kasuak izen sintagmari eransten zaizkio, izen sintagmaren azkeneko osagaiari hain zuzen, eta ez, latinean bezala, sintagmaren zati bakoitzari. Euskaraz deklinatzerakoan, honako hauek adierazten dira atzizkien bidez: artikulua, numeroa eta kasuak (gramatikalak, leku-denborazkoak eta gainerakoak). Hona hemen izen sintagmaren eskema:

Euskararen beste ezaugarri azpimarragarria aditzarekiko komunztadura da, hots, aditzak subjektuaren pertsona eta numeroa gordetzeaz edo islatzeaz gain, objektu zuzenarenak eta zeharkakoarenak ere biltzen ditu.

Lexikologia

Lexikoaren arloan aldaketa ugari izan du euskarak azkeneko 2.000 urteetan. Aldi luze horretan euskarak beste hizkuntza batzuekin ukipenean iraun duenez, maileguz etorrera eta asimilazioa handia izan da, gehienak latinetik eta inguruan sortuz joan diren erromantzeetatik etorriak, hain zuzen ere, gaztelania, frantsesa, gaskoiera eta biarnesetik.

Gaur egun, lexiko tekniko eta modernoa garatzeari begira, neologia-sorkuntzan nazioarteko terminoen eta euskarazko altxorretik sortutako terminoen arteko oreka bilatzea da erronka nagusia.

1.3. Euskalkiak

Euskalkiak hizkuntza baten aldaerak edo barietateak dira. Hizkuntza guztietako hiztunen artean izaten dira, hizkuntza bera hitz egin arren, aldaera desberdinak erabiltzen dituzten hiztun-multzoak. Aldaera horien arteko muga ezartzea ez da erraza, dialekto bat zehazten duten eta beste dialektoetatik bereizten dituzten ezaugarri guztiek ez baitute hedapen bera izaten. Geografia linguistikoan diharduten adituak, fenomeno horiek aztertuz eta mugarteak ezarriz, arduratzen dira euskalkiak bereizteaz.

Arnaud. Oihenart (1592-1667) izan zen euskalkiak desberdintzen lehena, eta, antzinako euskal tribuetan oinarrituz, lau bereizi zituen: Bizkaikoa, Gipuzkoa eta Arabakoa, Nafarroakoa eta, azkenik, Iparraldekoa. Aita Manuel Larramendik (1690-1766) bi sailkapen egin zituen: lehenengoan, hiru euskalki bereizi zituen (bizkaiera, gipuzkera eta nafar-lapurtera) eta bigarrenean, bost (bizkaiera, Arabakoa barne; gipuzkera; nafarrera; lapurtera, Nafarroa Beherekoa barne; eta zuberera).

Edonola ere, euskalkiak sailkatzen aritutakoen artean garrantzitsuena Louis-Lucien Bonaparte da, dudarik gabe. Guztira lau sailkapen egin bazituen ere, interesgarriena eta gerora kontuan gehien hartu izan dena azkenekoa da, 1869koa. Zortzi euskalki bereizi zituen: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera (æzkerako barne), ekialdeko behe-nafarrera (zaraitzuerako barne) eta zuberera (erronkariako barne). Sailkapen orokor horren barruan, 25 azpieuskalki bereiztu zituen.

Hemeretzigarren mendean ere, autore askok ikertu zituzten euskalkiak: Vinson Van Eys (1879), Arturo Kanpion (1884), P. Inza (1884-1992), Georges Lacombe (1879-1947), Fermin Irigarai (1869-1949), Pedro Yrizar (1910...) Resurrección M^a de Azkue (1864-1951), Euskaltzaindiko lehen euskaltzainburua. Azkuek, Bonaparteren sailkapenari jarraituz, honako aldaketak proposatu zituen: erronkaria euskalkizat jotzea, goi-nafarrera euskalki bakarra izatea, bai eta behe-nafarrera ere. Azken urteotan, ugalduekin egin dira euskal dialektologia lantzen dituzten lanak, eta horien artean azpimarratzekoak dira Koldo Zuazok idatzitako *Euskalkiak, herriaren lekukoak* (2003), eta Euskaltzaindia egiten ari den *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*.

1.4. Euskara Batua

Euskara euskalkitan banatua iritsi zaigu. Euskalkion arteko desberdintasunak ez dira oso handiak hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, baina aski handiak dira hiztun arruntek elkarri ulertzeko sarritan zailtasunak izan ditzaten. Beraz, hizkuntza estandarren helburua da euskaldun guztiek ulertu ahal izango duten hizkuntza komuna ezartzea euskalkien gainetik, horretarako hizkuntza estandarra normalizatuz (hori Euskaltzaindiari dagokio), eta hezkuntzaren, hedabideen eta gainerako kanalen bidez hizkuntza normalizatua zabalduz.

Historia laburra

Euskara batzeko beharra gure lehen idazleek ere ikusten zuten, baina Euskaltzaindia sortu zenean (1919), helburu nagusietako bat bihurtu zen. Hasieran, proposamenik indartsuena gipuzkera oinarri zuena izan zen (Azkue). Gerra ostean, Euskaltzaindiak lapurtera klasikoa hartu zuen eredu (Krutwig), literaturaren historia aztertu ondoren. Urte batzuk beranduago, autore batzuek –Gabriel Aresti, José Luis Alvarez Enparantza (Txilardegi), Xabier Kintana eta belaunaldi berriko idazleek– euskararen batasuna sustatu zuten. Egoera horretan, Pirinioen bi aldeetako idazleek osatutako multzo batek Baionako Biltzarra (1964) antolatu zuen, idazle askorentzat bilera hori arauen inguruko erreferentzia bihurtu zena.

Baionako taldea Ermuan bildu zen 1968an, Euskaltzaindiari bere jarreraren berri eman zezan eskatzeko. Horrek Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra ekarri zuen (1968 urriak 3-5). Biltzar horretatik atera zen euskara idatziaren batasunerako lehengo arau-multzoa, ortografiari, morfologiari, deklinabideari eta neologismoei buruzkoa, horretarako, oinarri hartuta, lehenik, gipuzkera eta nafarrera eta, bigarren mailan, ertzetako euskalkietako aldaerak.

Beranduago, 1978an, aditzari buruzko gramatika bat argitaratu zuen, eta 1979an *h* letraren erabilerari buruzko argibideak eskaini zituen. Garai horretakoak dira aditz trinko batzuen paradigmak, Euskal Herriko herrien izendegia, matematika-hiztegia, kontsonante palatalak idazteko arauak eta gomendioak, erakusleen deklinabidea eta abar.

Nahiz eta 1968tik 1980ra bitartean argitaratutako arau, gomendio eta hitz-zerrenda hauek abiatzeko behar ziren gutxienezkoak eskaini zituzten, ez zieten heldu arazo handiei, hala nola, hiztegi historikoari, hiztegi arauemaileari, gramatikari edo euskalkien atlasari. Gai horiek lantzeko, Iker Saileko batzordeak (Hiztegiak, Gramatika, Dialektologia, Onomastika eta Literatura) eta Jagon Sailekoak (Corpus eta Sustapena) izendatu zituen 1980tik aurrera Euskaltzaindiak.

2. Corpus-plangintza

Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakonean, estandarizazioan eta modernizazioan egindako urratsak kontuan, esan dezakegu corpus-plangintza nahikoa landuta eta bideratuta dagoela Euskal Herrian, nahiz eta, oraindik, bide horretan jarraitu behar den, normalizazio osoa lortu arte.

2.1. Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona

Edozein hizkuntza ongi ezagutzeko hainbat lan egin behar izaten da hizkuntza horren erabilerari buruzko datuak izateko, eta, horretarako, hizkuntzaren erabilera deskribatzen duten lanak egitea komeni izaten da. Lan horiek bereziki interesgarriak dira hizkuntzaren osagai desberdinak (gramatika, lexikoa, ...) estandarizatzeko erabakiak hartzeko orduan, kontuan hartu beharreko datuak eskaintzen dituzten lan deskribatzaileak izaten direlako. Lan hori hizkuntza-akademiek egiten dute, egon badaude. Euskararen kasuan, lan hori Euskaltzaindiak burutzen du.

Euskaltzaindiak egiten ditu euskararen erabileraren gaineko lan deskriptibo nagusienak, aginte publikoekin (Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin eta Nafarroako Gobernuarekin) izenpetuta hainbat lankidetzeta-hitzarmen izenpetuta baititu.

Hona euskararen erabileraren gaineko lan deskriptibo nagusiak:

2.1.1. Euskal Gramatika

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izenburuarekin. Euskara idatziaren historian zehar gramatikazko egitura ezberdinak, lokailuak, juntagailuak, etab. nola erabili izan diren deskribatzen du lan honek. Berez, ez da gramatika arauemailea, gramatika arauemailea egiteko orduan oso kontuan hartu beharreko informazioa ematen duen lana baizik. Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da, eta aurreikusitako hiru liburuetatik bat argitaratu da (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - V (Mendeko perpausak - 1)*.

2.1.2. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Orotariko Euskal Hiztegiaren xedea da, hiztegi historikoa (1970erainokoa) eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta euskalki guztietako euskal hitz-ondarea biltzea. Ia hirurehun liburutatik jasotako corpusa aztertuta, lau milioitik gorako hitz-altxorrarekin lan egiten da. Hots, tradizioaren bilketa-lanean oinarritzen da proiektua. Hiztegiaren I. liburukia 1987an argitaratu zen, eta XIII.a, 2001ean. Euskaltzaindiak 2004an bukatzea aurreikusten du.

2.1.3. XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa

XX. mendeko euskara (1900-1995) jasotzen duen corpus estatistikoa da, 4.658.036 testu-hitzez osatua. Erabili izan den eta erabiltzen den euskararen lekuko eta erakusgarri izatea du egiteko nagusi eta ia bakarra, eta ez ereduzko hizkuntza proposatzea.

Corpus estatistikoaren oinarria XX. mendeko euskal argitalpenen inbentario osoa da, garaiaren, euskalkiaren eta testu-motaren arabera sailkatuta. Argitalpenek osatzen duten unibertsoetik abiatuta, osotasun hori proportzionalki adierazten duen lagina, orotara 6.351 obra-zatik osatua, egin da zozketa bidez.

Proiektua Euskaltzaindiaren Hiztegi-gintza Batzordearena da, eta lana UZEI erakundeak egin du (www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html).

2.1.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)

Beste hizkuntza-atlas batzuen kasuan bezalaxe, euskararen hizkuntza atlasak ere euskararen eremu osoan (Nafarroa eta Iparraldea barne) barreiatu-erako inkesten bidez, hizkuntza mintzatuaren errealitatea jasotzen du bere estatus dialektalean, hau da, euskaraz hitz egiten den lurralde osoan aukeraturiko puntuetan euskaraz nola hitz egiten den jasotzen du.

Euskaltzaindiak euskararen hizkuntza-atlasa egiteko bildu dituen dokumentuen artean, grabaketak daude, euskararen eremuko 145 herritan eginak, 1986 eta 1992 artean. Grabaketa horiek, 4.000 ordu baino gehiagoko hizketaldiak eskaintzen dituztenak, CD-ROMetan bilduak izan dira. Hori horrela, ondare horretaz baliatuz, ohiko euskal mintzamoldeen antologia moduko zerbait moldatu eta euskarri erabilerraz batean ematea erabaki du Euskaltzaindiak. Horren emaitza *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia* lana dugu, Euskaltzaindiaren web gunean kontsultagarri (www.euskaltzaindia.net).

2.2. Hizkuntzaren estandarizazioa

Estandarizazioaz mintzatzen garenean, batez ere hizkuntza idatzirako finkatu beharreko ereduaz ari gara, baina, ez dugu ahozko hizkuntza ahaztu behar; izan ere, arau batzuk hizkuntza idatzirako dira (ortografia), beste batzuk ahozko hizkuntzarako (ahoskera, azentua...) eta beste arau batzuk ahozkoan zein idatzizkoan aplikatzen dira (arau gramatikalak, lexikoak, hizkuntza-erregistroak...).

Estandarizazioa Euskaltzaindiari dagokionez, 1968an ekin zion euskara batua finkatzeko urrats sendoak emateari, Arantzazun egin zuen biltzarrean.

2.2.1. Bereziki hizkuntza idatzirako finkatu beharrekoa: ortografia

Esan bezala, euskararen ortografia 1968. urtean Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen biltzarrean finkatu zen gehienbat. Harrezkero hartutako zenbait erabakiren ostean, ortografia ia erabat finkaturik dugula esan daiteke.

2.2.2. Bereziki ahozko hizkuntzarako finkatu beharrekoak: ahoskera, azentua

Euskaltzaindiak 1998an ahoskeraren batasuna erdiesteko irizpideak eman zituen, beti ere gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, irrati-telebistetako berri-emanaldietan, jendaurreko hitzaldietan, eskola-jardueretan eta antzeko egoeretan erabili behar dela.

Hona hemen Euskaltzaindiak gai honetaz zer dioten:

“Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) ahozko hizkuntza estandarra izango da, alegia hiztun ororen erreferentzia tresna, hizkuntzaren maila formaletan erabili beharko dena. EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, osagarritzat baizik. Ez da Euskara Batua ahoskatzeke modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeke era. Besteak beste, horrek esan nahi du EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziak gainera irakatsi beharko dela eta ez haren orde. Era berean, on da, komunikabideek ere askotariko eredu edo eredu malgu ematea.”

Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan izeneko adierazpenean (2004), euskalkiak erabiltzeko eta euskara batuan txertatzeko arauak eman ditu Euskaltzaindiak. Adierazpen horren helburua da, bi erregistroak, euskara batua eta euskalkiak, zein eremutan erabili zehaztu eta mugatzea. Horretarako, oinarrizko lau abiaburu hauek proposatu ditu:

- 1.- Euskaraz mintzo diren hiztunen egoera desberdinei begirunea zor zaie.
- 2.- Euskalkiak eta euskara batua osagarriak dira.
- 3.- Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai.
- 4.- Euskaltzaindiak emandako arauak eta gomendioak betetzea.

Euskalkien alorrez alorreko erabilera dela eta, Administrazioan eta Komunikabideetan hartzaileak kontuan hartu beharra aipatzen du; horrela, esparru zabaleko mezuak badira, euskara batua gomendatzen da, eta, esparru mugatu edo txikiagoetakoetan, bertako euskalkia.

Irakaskuntzan, egoeraren arabera, hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa erabili beharko du hezkuntza-komunitateak: idatzizko zereginetan eta irakaskuntzaren jardura formaletan euskara batua erabiliko da, eta euskalkia edo azpieuskalkia, lagunartekoetan. Horri lotuta, irakasleak hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea gomendatzen du, ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan lagundu ahal izateko. Helduei dagokienez, alfabetizatzea eta euskalduntzea bereiztu beharra aipatzen da, ikas-prozesu ezberdinak direlako.

2.2.3. Hizkuntza idatzirako zein ahozkorako finkatu beharrekoak: gramatika, hiztegia, onomastika, hizkuntzaren erregistro ezberdinak

Gramatika (ikus 2.1.1)

Lexikoa

Hizkuntzen estandarizazioari begira, ezinbestekoa da ahozko zein idatzizko erabilerarako lexikoa aztertu eta hitz-multzo nagusia finkatzea (forma finkatu, adierak bereizi...). Hitz-multzo horren barnean, lexiko arrunta eta berezia, hau da, terminologia, hartu behar dira kontuan.

Euskaltzaindiaren eginkizun nagusietako bat da euskararen ohiko hitz-altxorra eguneratzea eta bateratzea. Horri begira sortu zen Euskara Batuaren Batzordea. Gaur egun, euskararen

lexikoa estandarizatzeko Euskaltzaindiak duen lan nagusia da *Hiztegi Batua*. Hiztegi hori egin ahal izateko oinarritzat hartu dira goian aipaturiko bi lan: *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso dira, guztira 20.000 hitz inguru, eta *Euskera* agerkariaren bigarren liburukiaren separatan argitaratu ziren 2000. urtean, eta Euskaltzaindiaren web gunean dago kontsultagarri (www.euskaltzaindia.net). Euskaltzaindia hurrengo 20.000 hitzak aztertzen ari da, *Euskara Batua* osatzeko.

Toponomastika

Onomastikak izen bereziak (antroponomia) eta tokien izenak (toponimia) aztertzen ditu; Izen hauek garrantzi handia dute hizkuntzaren barruan, jendearen eguneroko bizimoduan agertzen baitira (elkarrizketa arruntetan, norberaren dokumentuetan, administrazioko era guztietako erroldetan, komunikabideetan, eskoletako testuliburuetan, mapa eta planoetan, errepideetako errotuluetan, era guztietako komertzioen errotulu, iragarki eta propaganda orrietan, eta abarretan).

Antroponimoen eta toponimoen normalizazioa Euskaltzaindiari dagokio.

- Antroponimoak:

- *Ponte Izendegia* (2001) eta *Euskal Deituren Izendegia* (1998): www.euskaltzaindia.net/eoda.

- Toponimoak:

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle Entitateak* (udalerriak, kontzejuak, auzoak...). Izen ofizialak aldian-aldian eguneratzen dira, eta Interneten kontsulta daitezke: http://www1.euskadi.net/euskara_udalerriak/indice_e.asp.

Euskaltzaindiak, Eudelek eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) liburua argitaratu zuten 2001ean. Argitalpen horretan, biztanle-entitateen izen ofizialak eta Euskaltzaindiak proposatutakoak azaltzen dira.

Udalerrien izena Euskaltzaindiak ezarritakoaren arabera jarri nahi duten udalei aholkularitza eskaintzen die HPSk, espedientea tramitatzeko. Dokumentazio hau www.euskadi.net/euskara helbidetik jaitsi daiteke.

- Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko herri eta herritarren izendegiak: www.euskaltzaindia.net/eoda.

- 2003. urtean Bizkaiko toponimia berrikusi zen; horretarako, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak *Toponimia txikia arautzeko irizpideak* onartu zituen, HPSk eta Euskaltzaindiak zehaztu eta finkatu ondoren. Irizpide horiek ondoko helbidean kontsulta daitezke: www.euskadi.net/euskara_toponimia. Hurrengo urratsa irizpide horiek HPSren datu-basean jasotako Araba eta Gipuzkoako toponimiari aplikatzea izango da.

HPSk EAEko toponimiari buruzko datu-basea, lau multzotan sailkatuta: ahozko toponimoak, dokumentatuak, normalizatuak eta kartografikoak, 1:5.000ko eskalan jasoak (www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia).

- Argitalpenak: *Toponimia eta Kartografia: Oinarrizko Eskuliburua* (2002, toponimia-lanerako metodologiari buruzko oinarrizko eskuliburua) eta *Izen Geografikoen Glosarioa* (2001). Lanok HPSk argitaratu ditu (www.euskadi.net/euskara_toponimia)

- Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren bidez, Toponimiako Batzorde Berezia eratu zen (179/2002 Dekretuaren bidez aldatua), Euskal Autonomia Erkidegoko toponimok ezarri, aldatu edo berreskuratzeko proposamenak egiteko. Batzorde honek onartua du bigarren jarduketa-plana (2004-2005).

Hizkuntza-erregistroak

Edozein hizkuntzaren ahozko zein idatzizko erabilerarako, hizkuntza-erregistro ezberdinak behar izaten dira. Gurean, ordea, gutxi jorratu da gai hau.

2. 3. Hizkuntzaren modernizazioa

Gizartearen bilakaerak eta ondorioz sortzen diren errealitate berriek termino berriak sortzera behartzen ditu hizkuntzak, batez ere hizkuntza teknikoetan edo teknolektoetan.

2.3.1. Terminologia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPNren) VI.3.3.a atalean "Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea" azaltzen da, eta, besteak beste, honako hau agintzen du: "Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako".

EBPNk agindutakoa gauzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezkotzat jo zuen datozen hamar urteetan egingo den terminologia-lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko plana egitea, eta, horretarako, bi ekimen gauzatu dira:

Euskararen terminologia-banku publikoa sortzea

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren oinarria UZEIk 1987an sortutako izen bereko banku terminologikoa izan da (www.euskadi.net/euskalterm).

Terminologia Batzordea eratzea

Euskarazko terminologia-arloan erabakiak hartzeko eskumena duen Terminologia Batzordea sortu zen Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal berezi gisa (179/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko zen Dekretuaren aldaketa egiten duena. EHHA 148 zk.).

Terminologia-alorreko lehentasunak finkatu, lan-proposamenak egin, terminologia-laneko irizpideak eman eta termino lehiakideen artean termino hobetsia proposatu, landutako terminologia-lanei onespina eman, finkatutako terminologiak zabaltzeko bideak proposatu eta terminologia horien erabilera gomendatzea dira batzorde-atal bereziaren egiteko nagusiak.

Terminologiaren normalizazioak dituen berezitasunak direla eta, batzordean gai horrekin zerkusirik duten hainbat jakintza-gaitako, arlotako eta erakundetako ordezkariak dira (2003ko martxoaren 3ko EBAZPENA, Hizkuntza Politikako sailburuordearena, Euskararen Aholku Batzordearen Terminologiako Batzorde bereziaren osaera aditzera ematen duena):

a) Lehendakaria: Hizkuntza Politikarako sailburuordea

b) Lehendakariordea: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria

- c) *Idazkaria: Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkaria*
d) *Ondorengo erakundeek eta organismoek proposatuta izendatuko diren bokalak:*

EAEko Administrazioako ordezkariak:

- *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria*
- *HAEEko ordezkaria*
- *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko ordezkaria*

EAEko Administrazioaz kanpoko ordezkariak:

- *Euskaltzaindiko ordezkaria*
- *UZEIko ordezkaria*
- *Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria*

e. *Gehienez ere beste sei bokal, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuak terminologian eta euskararen aditu direnen artean (...).*

f. *Lantzen den terminologia eremu jakinaren arabera, beste aditu batzuk ere izenda ditzake Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, batzordeko kideen lanaren lagungarri. Lana amaitu arteko izendapena izango dute kide hauek."*

Terminologia Batzordeak, terminologia-lanen koordinazio-organoa denez, lankidetzaren eskainiko die terminologia-lana egiten dutenei: aplikatu beharreko metodologia, irizpideak...; terminologia-lan horiek Batzordeak ontzat emanak izan beharko dute, EUSKALTERMen txertatu eta erabiltzaileei gomendatu aurretik.

Dagoeneko, Terminologia Batzordeak 2003-2005 Jarduketan-plana onartu du; bertan jasotzen dira datozen 3 urteotan terminologia-arloan egin beharreko lanak.

Bestalde, HPSk terminologia-lanaren plangintzaren barruan abian jarritako ekimenen artean ondoko hauek azpimarra daitezke:

Terminologia mintegia

Mintegi hau Quebecoko Gobernuko *Office québécois de la Langue française-ekin* (OQLF) antolatu zen HPSk, Miñako (Araba) Parke Teknologikoan, 2001eko otsailaren 27a eta martxoaren 1a bitartean, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko aditu-talde murriz bat partaide zirela. Mintegi honek helburu bikoitza zuen: batetik, OQLFren esperientzia, lan-metodologia, normalkuntza-irizpideak eta lan-tresnak eta produktuak ezagutzea, eta, bestetik, lankidetzaren bidez irekitzea aipatu entitatearekin.

Argitalpenak

- *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua* (2003): terminologia-lana egiteko kontuan hartu beharreko jardute-urratsak eta gomendio praktikoak.
- *Terminologia Hiztegia* (2003): terminologiagintzaren kontzeptuak eta izendapenak, hau da, terminoak definitzen ditu. Horretaz gain, gaztelaniako, frantseseko eta ingelesko baliokideak ematen dira.

2.3.2. Terminologian lan egiten duten erakundeak

- UZEI (www.uzei.com)

UZEI erakundea 1978an sortu zen, euskararen presentzia unibertsitate-mailan bermatzeko hiztegi espezializatuak egiteko helburuarekin. Enpresa horren lanaren emaitzak dira geroztik sortutako hiztegiak eta 1987an sortutako EUSKALTERM banku terminologikoa, egun EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren oinarrian dagoena.

- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (HAEE) Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala (IZO) (<http://www.ivap.org/cast/izo/caratula.htm>)

EHEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren baitan Terminologia Atala dago. Lantalde horren funtsezko eginkizuna da, batetik, euskarazko lege- eta administrazio-hizkera modernoa sortu, estandarizatu eta hedatzea eta, bestetik, lege- eta administrazio-terminologia finkatzea (38/2000 Dekretua, otsailaren 29koa, Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala arautzen duena).

Dagozkion eginkizunak betetzeko, Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak atal funtzional hauek ditu:

- a. Itzulpengintza eta Interpretazioa
- b. Terminologia

- ELHUYAR fundazioa (www.elhuyar.com)

Euskalgintzaren arloko zerbitzu-enpresa da, eta terminologia-lanak egiten ditu, besteak beste. Hala, hainbat erabileremutako lanak burutu ditu: munduko ugaztunak, geologia, energia, ingurumena, gizarte-lana, enpresa-kudeaketa aurreratua...

- Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzua (<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/gabinete/gabinete.htm>).

Erakunde hau 1996an sortu zen (1996ko abuztuaren 16ko HEAA, 156 zk.), baina 1997-1998ko ikasturtean hasi zen lanean, ondoko funtzioei lehentasuna emanez: EHUko irakasle elebidunentzako euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea, ikastaro horietako langaiak biltzen dituzten argitalpenak bultzatzea eta unibertsitate-mailako ikasliburuak hizkuntzaren aldetik ikuskatzea.

2.3.3 . Hiztegi orokor modernoak eta erreferentzia-lanak

- Hiztegi elebidunak:

- Dictionnaire Elhuyar Hiztegia (Euskara/Frantsesa – Frantsesa/Euskara)
Elhuyar
Elkar, 2004

- Elhuyar Oinarrizko Hiztegia (Euskara/Gaztelania – Gaztelania/Euskara)
Elhuyar
Elkar/ Hiztegiak, 2002

- Euskara ikaslearen oinarrizko hiztegia
HABE, 2002

- 3000 hiru mila, multimedia hiztegia (Euskara/Gaztelania-Gaztelania/Euskara)

(CD-ROM). www.euskadi.net/hizt_3000

Adorez 7
Bostak bat, 2000

- Elhuyar Hiztegia (Euskara/Gaztelania - Gaztelania/Euskara)
www.euskadi.net/hizt_el
Elhuyar, 2002

- Morris Student Plus Hiztegia (Euskara/Ingelesa-Ingelesa/Euskara)
www.euskadi.net/morris

- Hiztegia Eskola 3000
Adorez 7
Bostak bat, 2001

- Ikaslearen Hiztegia
Elhuyar
Elkar/Hiztegiak, 2001

- Euskal Hiztegi Modernoa (Euskara/Gaztelania –Gaztelania/Euskara)
Elhuyar
Elkar, 2000

- Euskara Ikaslearen Hiztegia
Sarasola, Ibon
Vox, 1999

- Elhuyar Hiztegi Txikia (Euskara/Gaztelania –Gaztelania /Euskara)
Elhuyar
Elhuyar, 1998

- Elhuyar Hiztegi Elektronikoa (CD-ROMa)
Egilea: Elhuyar
Elhuyar, 1996

• **Euskarazko hiztegi elebakarrak:**

- Hiztegi Batua
Euskaltzaindia
www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua

- Sinonimoen Hiztegi Antonimoduna:
Bostak bat/Adorez
www.euskadi.net/hizt_sinon

- Sinonimoen Hiztegia
UZEI, 1999

- Sinonimoen Kutxa – Sinonimo eta Antonimoen Hiztegia
Urrujulegi, Jon
ELHUYAR, 1999

- Euskal Hiztegia
Sarasola, Ibon
Gipuzkoako Kutxa, 1997

- Europa Hiztegia (CD-ROMa. Hiztegi interaktiboa)
Bostak bat, Aurten Bai
Aurten Bai, 1995

- Nire lehen Hiztegia
Mendiguren, Iñaki
SUSAETA EDICIONES S.A.

• **Hiztegi entziklopedikoak:**

- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa
Egilea: Klaudio Harluxet Fundazioa
http://www1.euskadi.net/harluxet/indice_e.htm

- LUR Hiztegi Entziklopedikoa
Lur Argitaletxea, 2003

- LUR Entziklopedia Tematikoa
Lur Argitaletxea, 2002

- Entzikloklirik CD-ROMa (Gazteen Entziklopedia, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa eta beste zenbait artikulu)
Klaudio Harluxet Fundazioa
EUSENOR 1996

- Eskolarako Hiztegi Entziklopedikoa
Editorial Lur Argitaletxea, 1996

Hizkuntzen teknologiak

Euskarak asko aurreratu du azken urteotan teknologia berrietan integrazteko, neurri handi batean Eusko Jaurlaritzak ezarritako plan hauei esker:

- 1999, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia
- 2001-2004, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana: Hizkuntza industriaren programa.
- 2002-2005, Euskadi Informazio Gizartean Plana
- 2003-2005, Informatika eta Telekomunikazio Plana

Orain arte garatutako proiektu eta produkturik esanguratsuenak honako hauek dira:

1. Euskarazko prentsa on-line (euskara hutsezko egunkari bat eta izaera ezberdineko hainbat aldizkari).
2. Euskara ikasteko eta euskarazko edukiak dituzten CDak
3. Diziplina anitzeko euskarazko web orriak, euskarazko bilatzaileak (www.kaixo.com, www.aurki.com, www.jalgi.com) eta gaikako aldizkari digitalak eta eztabaida-guneak (www.sustatu.com eta www.erabili.com).
4. Sarean jarritako hiztegiak, corpusak eta hainbat erraminta, oso erabilgarriak hizkuntzaren teknohiztunenetzat:
 - XUXEN euskararen zuzentzaile ortografikoa: www.euskadi.net/euskara_soft

- EUSKALTERM, Terminología Banku Publikoa: www.euskadi.net/euskalterm
 - Hiztegi elektronikoak
 - Elhuyar Hiztegia, gaztelania-euskara/euskara-gaztelania: www.euskadi.net/hizt_el
 - 3000 Hiztegia, español gaztelania-euskara/euskara-gaztelania: www.euskadi.net/hizt_3000
 - Sinonimoen Hiztegia, Antonimoduna: www.euskadi.net/hizt_sinon
 - Morris Student Plus Hiztegia ingelesa-euskara/euskara-ingelesa: www.euskadi.net/morris
 - Harluxet hiztegi entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet
 - Elhuyar EU/ES hiztegiaren plugin-a: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Hiztegi Batua: www.euskaltzaindia.net
 - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa: www.euskaracorpusa.net
 - Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): <http://ixa2.si.ehu.es/edbl/>
 - EAEko Toponimia-datutegia: www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia
 - Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateen izen, euskal abizen (orain 10000 inguru bildu dira) eta ponte-izen ofizialen izendegiak: www.euskaltzaindia.net
 - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), euskaraz eta gaztelaniaz: www.euskadi.net/bopy
5. Software produkturik erabilieneen itzulpena eta lokalizazioa:
- Windows 95 eta Windows 98; Windows XP interfaze-aren paketea: www.microsoft.com/spain/windowsxp/euskera
 - Word 6 eta Office 2000 (Word, Excel eta Outlook) eta Office 2003ren interfaze-paketea; azken hori helbide hauetatik deskarga daiteke: <http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=ccf199bc-c987-48f5-9707-dc6c7d0e35d0&displaylang=eu> eta www.euskadi.net/euskara_soft
 - Internet Explorer 4 eta 5; Outlook Express 5
 - Linux Mandrake sistema eragilearen 8.2 y 10.0 bertsioak: www.euskadi.net/euskara-soft
 - OpenOffice.org 1.0.2 ofimatika-paketea, bai eta 1.1 bertsioa Windows eta Linux-erako ere: www.euskadi.net/euskara-soft
 - Panda Titanium Antibirusa: www.pandasoftware.es/titanium/euskara
 - Panda Platinum Antibirusa: www.pandasoftware.es/platinum
 - Autoikaskuntzarako Wit ikastaroak (Word 2000 eta Internet 2000)
 - Omnipage-ren 11. eta 12. bertsioetarako OCR, bai eta Windows Word-erako eta Mac Word 2001erako ere: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Optenet, Interneten edukietarako iragazkia: www.optenet.com
 - Prisma II: Pyme-ak kudeatzeko softwarea
 - SAPen bost kudeaketa-modulo: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Eskola softwarea (EIMA) euskalduntzeko programak (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak: http://www1.hezkuntza.ejgv.net/dih3/h3_e.htm)
6. Agertoki birtualak:
- HABENET: sare honek HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen eta euskaltegien, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa koordinatzen du, euskara ikasteko/irakasteko.
 - HIZPONET, hizkuntza-plangintzaren kudeaketa optimizatzeko. Honen helburua da Euskararen gizarte-azpiegitura publiko eta pribatuetan barne- eta kanpo-komunikazioa hobetzea.
 - HIZNET hizkuntza-plangintzari buruzko graduondoko ikastaro birtuala da eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) eta Soziolinguistika Institutuak (SEIK) antolatu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera: <http://www.asmoz.org/HIZNET/>

- LINGUANET, prestakuntza-moduluak on line, eremu sozioekonomikoan diharduten hizkuntza-normalkuntzako teknikariei zuzenduak. Asmoz Fundazioaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2004ko ekimena da.
 - Zinegotziek euskara ikasteko moduluak on line dituzte laster Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskadiko Udalen Elkarreak (EUDELEk): http://www.euskadi.net/euskara/indice1_c.htm eta <http://www.eudel.es>
7. Informazioa biltzea, berreskuratzea eta bilatzea:
- Kapsula softwarea: indexatu eta kontsultatzeko euskaraz merkaturatu den lehen softwarea; lematizazio-teknikak erabiltzen ditu (dokumentuak kudeatzeko sistema legez garatua). Proiektua Ametzagaina eta Adur Software enpresek garatu dute, eta Eusko Jaurlaritzaren Intek programaren bidez finantzatu da: www.kapsula.com
8. Ahotsaren ezagutza automatikoa eta sintesia
- Telefónicak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera hizkuntza-gaitasunak jorratzeko hainbat proiektu garatu ditu, euskaraz ahotsa interpretatu eta soinu bidezko mezuen sintesia egiteko.
 - Eusko Jaurlaritzak Scansoft Belgium enpresa belgiarrarekin lankidetzan hitzamermentu sinatu zuen 2003an, batetik, ahotsaren ezagutza eta sintesirako motoreak sortzeko, eta, bestetik, euskarazko elkarriketa kudeatzeko motoreak. Teknologia alorreko agente euskaldunak (enpresa eta unibertsitateak) proiektua bideratzeko behar diren hizkuntza-baliabideak egiten ari dira: datu-base akustiko bi, lexiko fonetiko bat eta testu-corpus handi bat. Horren helburua da ahots-teknologiak erabiltzen dituzten aplikazioak garatzen dituzten enpresek euskara integratzea beren produktuetan.
9. Hizkuntzaren ingeniartzaren oinarriko teknikak garatzea, esate baterako, hizkuntza prozesatzeko teknikak. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldeak (www.ixa.si.ehu.es) honako lan hauek burutu ditu:
- MORFEUS analizatzaile morfologikoa
 - EUSLEM, euskararako lematizatzaile/etiketatzaile automatikoa
 - Gain: euskarara egokitutako Internet/Intranet bilatzailea.
 - Multimeteo: eguraldi-iragarpenak sortzeko sistema euskaraz

Aipatzekoa da, halaber, Deustuko Unibertsitateko DELi ikerketa-taldea, informazio eta komunikazioko teknologietako lerroa irekita baitu: www.deli.deustu.es

10. Testua testu bihurtzea (itzulpena) eta testuaren tratamendua testuinguru ofimatikoan; funtzionaltasunak:
- Itzulpen-memoriak: lege- eta administrazio-itzulpenen memoriaren corpusa sortzen ari da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala, Trados teknologiaren oinarriaren gainean.
 - Itzultzen laguntzeko tresnen zenbait prototipo, Euskal Herriko Unibertsitatearen IXA taldeak garatuak.
 - ATS teknologiaren esperimendazio-proba, euskarari aplikatuta; Eusko Jaurlaritzak eta Automatic Trans enpresa katalanak lankidetzan burutu dute.
11. Hizkuntza-ingeniartza ikertzeko laguntza-programak:
- ETORTEK programa (2002-2005), Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarena: HIZKING 21, hizkuntza-ingeniartza XXI mendearen atean, proiektua bideratzen ari dira euskal enpresa eta unibertsitateen eragile teknologiko elkartuek.
 - INTEK programa, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarena: programa honen barruan ACOTE proiektua Garate zen, eta horren oinarriaren gainean gaur egun

AMETRA proiektua garatzen ari da. Proiektu biotan itzultzen laguntzeko tresnak ikertzen dira.

12. Hizkuntza-infoengeniariatzako enpresak sortzea: ELEKA enpresa; Adur Software, Ametzagaina eta CodeSyntax enpresak ere alor horretan ari dira.
13. Hizkuntza-teknologia irakaskuntzan sartzeari: HIZTEK graduondoko ikastaroa, Udako Euskal Unibertsitateak antolatua.
14. Euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan integratzeko dirulaguntzak: helburu horretarako, urtero agindu bat argitaratzen du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak. Halaber, helburu bera duten dirulaguntzak ematen dituzte Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek. Horiez gain, ekimen lokalago batzuk ere badira.

Ondorioak

Lan honetan euskararen corpus-plangintzaren azterketa sakona egin dugu, bazter utzi gabe estatusaren plangintza, eta kontuan izanik biak elkar lotuta daudela eta biek osatzen dutela hizkuntza-plangintza. Izan ere, estatusaren plangintza ezinbestekoa da hizkuntza giza jardueraren maila esparru guztietan gara dadin. EAEn corpus alorreko lanak burutu ahal izan dira, indarrean jarritako legeriari esker, horrela lortu baitugu hizkuntza-plangintza maila guztietan ezartzea.

Behar bezala garatu ez eta gerora landu beharko diren arloak daude oraindik, hala nola, euskararen erregistroak edo euskara mintzatuaren ahoskera, baina, hala ere, esan dezakegu Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra (1968) egin zenetik hona asko aurreratu dugula corpus-plangintzaren alorrean.

Gaur egun, urteetan zehar erabilitako euskara idatzia jaso dugu bi corpus handitan: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa*. Corpus horiek dira hizkuntzaren normalkuntza burutzeko, hau da, hizkuntza estandarizatu eta modernizatzeko beharrezko diren erreferentziak. Ildo horretan ere, *Hiztegi Batua* oinarritzko tresna da euskararen hiztunentzat. Aipagarria da, halaber, euskararen modernizazioan Terminologia Banku Publikoa (EUSKALTERM) eta Terminologia Batzordea sortu izanak izan duen garrantzia. Batzorde horrek, terminologia alorreko organo eskuduna izanik, gomendatuko du aurrerantzean Terminologia Batzordeak onartzen dituen terminoen erabilera, hain zuzen ere EUSKALTERMen bidez sustatuko dena.

Beste lan garrantzitsu bat Toponimiaren normalizazioa da. Arlo hori Euskaltzaindiaren lankidetzarekin eta Toponimia Batzordearen zuzendaritzapean garatuz joan da, eta aurrerapauso handiak egin dira: batetik, toponimia normalizatzeko irizpideak finkatu dira, eta, bestetik, EAEko toponimia-basea eguneratuz joan da.

Azkenik, azpimarratu behar da euskararen erronkarik garrantzitsuena bere presentzia Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrietan ziurtatzea dela. Argi dago hizkuntza gutxituek desabantailak dituztela hizkuntza-teknologien garapenari dagokionez. Euskararen merkatua, gainera, ez da nahikoa handia. Baina, euskararentzat, geroko gizartean bizirauteko, berebiziko garrantzia duenez teknologia berrietan integratzeak -sintesirako eta ahotsa ezagutzeko teknologiak, itzulpen automatikoa e.a-, lehenetasun handikoa da horretarako tresnak garatzea, esaterako, corpus digitalizatuak eta etiketatuak, testu-corpus elebidun lerrotatuak, hiztegien datu-base lexiko eta akustikoak eta abar. Horixe da, hain zuzen, euskararen erronka datozen urteetarako.

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURUA, X.; DIAZ DE LEZANA, A.: "El euskera y las nuevas tecnologías de la información y de la comunicación: el programa de industrias de la lengua". In *Actes del 2n Congrés europeu sobre Planificació Lingüística*. Barcelona: Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, 2003, 380. or.
- DIAZ DE LEZANA, A: "Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak". In *Administrazioko hizkera eta terminologiaz Jardunaldiak*. Oñate: HAEE-IVAP, 1989. 153-154 or.
 - *Euskara eta garapen teknolinguistikoa*. In http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1057933133 , 2003.
 - "El desarrollo tecnolingüístico del euskera". In *Linguapax*. In *Linguapax* Barcelona, 2004 (argitaratu gabea).
 - "Terminologia-lana euskaraz: urrats berriak" (Eleria (12), Eusko Ikaskuntza, 2004
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika: lehen urratsak –I*. Iruñea: I.G. Castuela, S.A., 1985.
 - *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia 1998*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999.
 - *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia 1999*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2000.
 - *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia 2000*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2001.
- EUSKO JAURLARITZA: *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta. Euskararen Jarraipena III, 2001*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2003.
 - *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 1999. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1999.
- HAUGEN, E.: "The implementation of corpus planning". In *Progress in language planning: international perspectives*. Berlin: Mouton, 1983, 383 or.
- INTXAUSTI, J.: *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritza, 1990.
- MITXELENA, K.: *Lengua e historia*. Madrid: Paraninfo, 1985.
 - *La lengua vasca*. Durango: Leopoldo Zugaza, 1977.
 - *Palabras y textos*. [Leioa] Argitalpen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987.
 - *Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco*. In *Revista de Occidente*, 10.-11. zk., 1982.
- ROTAETXE, K.: *Sociolingüística*. Madrid: Editorial Síntesis, 1988.
- TOVAR, A.: *La lengua vasca*. Donostia-San Sebastián: Biblioteca Vascongada de Amigos del País, 1950.
- VILLASANTE, L.: *Euskararen auziaz* (Luis Elizalde ; 9). [S.I.] : [s.n.], DL 1988.
- ZUAZO, K.: *Euskararen batasuna* (Iker 5). Euskaltzaindia, Universidad del País Vasco, 1988.